

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

82. zenbakia

95eko abenduak 1



Jai eleganteak Ormaiztegin

FS
oto istema
FOTOS EN 1 HORA

Zure ezkontza egunerako argazkilariaz pentsatu al duzu?

Zatoz eta hitz egingo dugu.



Zure Argazki

Domingo Unanue kalea, 1
Tel. 88.93.25
ORDIZIA

Nekolalde, 1
Tel. 72 58 84
URRETXU



JOXE M. LARRAÑAGA, ORMAIZTEGIKO EUSKADIKO KUTXA: "Ormaiztegik lana esportatzen du"

Euskadiko Kutxak dituen 220 bulego-tatik 6. zaharrena da Ormaiztegiakoa. Goierriko zaharrena eta txikiena. Duela 32 urte Irizar kooperatiba sortu zenean iriki zen bulegoa, "kooperatiba batek ondoan banketxe bat behar baitu". Joxe Mari Larrañaga ormaiztegiar-rrak zuzentzen du bulego txiki hau, duela 12 urtez geroztik. Enpresa Zientzietan 3 urte eta Magisteritzan beste 3 urte egin zituen. Magisteritza bukatzeaz zegoela oposaketa egin eta bulegoko postua eskuratu zuen. Harrez gero, banketxe barneko ikasketak egin izan ditu 37 urteko ormaiztegiar honek.

Industria finkatuta

"Zumalakarregiz gain, autobusengatik da ezaguna Ormaiztegi. Beti izan da herri honetan industria nahiko finkatuta. Irizar, Letag, Imeguisa... Beti lana esportatu egin du Ormaiztegik, herriak behar baino lanpostu gehiago sortu izan ditu. European herri atipiko bezala azaltzen da", adierazi du Joxe Mari.

Krisialdia pasatu omen

da piska bat, "dirua ikusten hasi da. Goierri da momentu honetan ondoen dagoen eskualdea. Baitorra da egoera", gaineratu du. Euskadiko Kutxa kooperatiba da, Irizar ere bai eta Joxe Mariren esanetan, "krisialdian erantzun egokia eman duen sistema bakarra kooperatiba izan da. Solidariagoa da kooperatiba. Guk kapitala eta lana jartzen dugu eta beste enpresa pribatuetan, lanaren truke soldata ematen dute eta kitto. Inbento ona da".

Etxebizitza beharra

Beasaindik Durangora dihoan errepidea laster jarriko da berriro ere martxan, kalte-ordain edo indemnitazioak iritsi baitira. Ormaiztegi herritik kanpo pasatuko da. Hori dela eta, "Idiazabali gertatu zaion bezala gertatuko zaio. Beldutago geldituko da herria. Behar bada herri erresistentziala geldituko da. Baina horrek etxebizitzak egin behar direla esan nahi du. Udalak aukera gehiago jarri behar ditu gazteentzat. Azken bi urteotan gazteek herritik alde egingen dute, --dio Joxe Mari-- Ormaiztegin etxebizitzak erosteko aukerarik ez daukagulako. Bost urtean hiru etxe egin dira, eta denak salduta daude. Ez dago eskaintzarik. Beasain-Durango errepidearekin herria hilda geratuko



da". Joxe Mari berak ere Beasainera alde egin behar izan zuen Ormaiztegin ez zegoelako etxebizitza erosteko aukerarik.

Kutxazain automatikoa

Azken hamarkadan bankan izan den asmakizunik garrantzitsuenak da kutxazain automatikoa ormaiztegiarren esanetan. "Asko erabiltzen da gaur egun, Jaungoikoari esker. Bankan informatizazioa asko ari da sartzen azken 10 urteotan. Aurrera begira ere aldaketa handiak egongo dira. Enpresentzako banka elektronikoa jartzen ari gara, bulegora etorri gabe ere, behar dutena egiteko. Horrek lanpostuak kendu ditu noski". Nazioarte mailan ere, "Euskadiko Kutxa nahiko internazionalizatuta dautu. Atzerriko zerbitzuak oso onak ditugu, bai enpresa, bai bezero arrun-

tentzat", gaineratu du.

Urtea amaitzearekin batera, balantzeak egiteko garaia ere izaten da. "Urriaren bukaeran egin genuen bilera, eta % 11'64 gehiago irabazten ari gara, emaitza gordinakean, merkatu kuota ere hazi egin da, eta ratiotan banketxerik onenetako bat garela agertzen ari da. Iaz diru asko irabazi genuen. Oso urte ona izan dugu. Aurten, ekonomia goraka doala ikusi da, enpresak irabaziak izaten hasi dira".

San Andres jaiak

Herri txikia baina bizia da Ormaiztegi Joxe Mariren ustez. Jaiak, berriz, bereziak, normalean hotza nagusi izaten delako. Baina parrandan hortxe ikusiko duzue Joxe Mari. "Ondo pasa Sanandresak" esanez bukatu dugu elkarrizketa.

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarrak" Kultur
 Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Postetxe-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Maketazioa:
 Mikel Albisu.
Publizitatea:
 Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
 nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
 Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
 kane Altuna eta Estitxu Imaz.
Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:
 Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
 Jon Aizpurua, Izaskun Salazar,
 Aitziber Murua, Xabier Gartzia,
 Antonio Berasategi, Jexuxmari
 Mendizabal, Pako Zubeldia,
 Edurne Ayuso, Larratiz Arrati-
 bel, Belen Parra eta Nagore
 Goiburu.

Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.
Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 5.100 ale, 4.900 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkin-
 zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Joxemiel Barandiaranen omenez

Azken 4 urteotan bezala, Jo-
 xemiel Barandiaran Mur-
 kondo Kultur Elkartek, Jo-
 xemielen urte muga gogora-
 tzeko ekintza ugari antolatu
 du. Lizarrusti-Lareo-Oidui
 ibilaldia egin zuten azaroaren
 19an, Xabier Peñalber eta
 Joxean Mujikak gidatuta. 30
 bat lagun bildu ziren. Joan zen
 larunbatean, berriz, mitolo-
 giari buruzko mahai-ingurua
 izan zen, Mila Aierbe eta Jose
 Mari Satrustegiren eskutik.

Joanak joan, abenduaren
 2an, San Gregorio eta Aiako
 errota ikusteko aukera izan-
 go da Anton Agirresorondo-
 ren laguntzarekin. San Gre-
 gorioko plazatik abiatuko da
 ibilaldia 16:00etan. Hilaren
 6an, San Nikolas egunez,
 ohitura zaharra berreskuratu
 asmotan, eskean arituko dira
 ataundarrak. Zita, 16:00etan,
 San Gregorioko plazan.

Iaz bertso-afaria izan zen,
 aurtun trikitixa-afaria, Urbi-
 tarte sagardotegian abendua-

ren 15ean. Iluntzeko 8etan,
 mahai-ingurua izango da,
 Laja eta Landakanda eta Za-
 bale anaiekin, trikitixaren
 lehena eta oraina aztertze-
 ko. Ondoren, 21:00etan afaria
 izango da. Txartelak ohiko
 lekuetan daude salgai.

Abenduaren 22rako, Joxe-
 miel Barandiaran eskolan
 ipuin kontaketa izango da
 14:30ean hasita, eta ondoren,
 ipuin lehiaketaren sari bana-
 keta. Iluntzeko 8etan, Udale-
 txeko ganbaran, 'Urtaroak
 mendian' diapositibak eskai-
 niko ditu Imanol Lasak.

Eta Joxemiel zenaren ur-
 tebetetze egunean, abendua-
 ren 31n, lore eskaintza egingo
 da 12:00etan.

Era berean, erakusketa
 ibiltaria izango da, Ataun eta
 Aralarko trikuharrien koka-
 pen eta ezaugarriak gai har-
 tuta. Abenduaren 2tik 3ra,
 Aian; eta abenduaren 15etik
 22ra San Martinen.

Besteek esana

"Oso luze egin zitzaigun
 Francoren heriotza, eta pen-
 tsatzen genuen heriotzarekin
 aldaketak etorriko zirela herri
 honetara. Guk, baita ere,
 apustu egin genuen ruptu-
 raren alde baina ez genuen rup-
 turarik ikusten. (...) Nik asko-
 tan esaten dut Europak zen-
 bait urtetan lorturiko gauzak,
 gu 20 urtetan belozidade ba-
 tean lortzen ari garela, eta ho-
 rrek askotan flekoak uzten di-
 tu. Baina nik uste dut gaurko
 normaltasun demokratikoa
 oso positiboa dela, eta nor-
 maltasun horrek berak jartzen
 duela bidea aurrera jarraitze-
 ko".

Juan Mari Jauregik,
95-XI-19an 'Egunkaria'n.

"Indar handia dute bi aldeek
 (ezker abertzalea eta EAJ) el-
 karri min egiteko, alukeriak
 egiteko, oinazea handitzeko,
 eta horrekin batera gure he-
 rrian sor litezkeen bilgune eta
 topalekuak izorratzeko. Baina
 ez batuk ez besteak ez du aski
 indar bestearen norabidea al-
 darazteko. Makurtu ordez,
 zaildu egiten gara denok
 etsaiaren harrokeriaren au-
 rrean. (...)Halaxe entzun nion
 aurreko batean Juan Mari
 Olanori, garaipena lortzeko
 ari zirela borrokan; Atutxak
 ere ez du ematen berehala
 etsitzeko asmorik duenik.
 Bienbitartean, alde batetik eta
 bestetik muturrekoak jaso-
 tzen segitzen dugu, eta Espai-
 nia aldean, berriz, bat baino
 gehiago eskuak igurtzitzen".

Xabier Mendigurenek,
95-XI-16an, 'Egunkaria'n.

GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Zaldibiako eliztar guztiei

Asko pentsa ondoren, berriro ere idaztera ausartu naiz. Aurreko idatzian, uztailean prentsan argitaratua, Eliz Batzordeari zuzentzen nizekion nere kexa eta galderak. Ikusirik ez dudala inongo erantzunik jaso, oraingoan Zaldibiako eliztar guztiei zabaldu nahi diet azken urte hauetan zer gertatu den eta nola joan diren gauzak gure herriko Elizan.

Lehenik esan, idatzi hau publiko egin baino lehen, bide guztiak jorratu ditudala: pertsonalki egon, idatziak zuzendu... eta sinestezina bada ere, ez didate inongo erantzunik eman. Aurreko idatzian nioen bezala, uste nuen orduan eta ala uste dut orain, merezi dudala erantzuna.

Hasiko naiz, ea gai naizen laburtzeko, denbora asko pasa baita eta gauza asko gertatu ere.

Orain dela 65 urte...

Bikario D. Martin zegoen. Jakinik nere aitan ilobak, Felipek, ofizioa ikasi nahi zuela, D. Martin nere aitarengana joan zen, "sakristau" ofizioa hartu zedin. Nere aitak ezezkua esan zioenez, bikarioak, nerekin moldatzea erabaki zuen, aitak pixkat lagunduta.

Eta orduan finkatu ziren nere egin beharrak, honela hasi nintzen eliz gizon bezala lanean; lanen zerrenda aipatzea oso luze joango litzaidake, bainan hemen daukat idatzita norbaitek jakin nahi badu.

Nere lanen urteko saria 40 duro. Bataio bakoitzeko 2 pezeta ematen zidaten, baita ezkontz egunetan. 1975. urtean, D. Modestok, bakarrik zegoela eta, hil kanpaiak nere kargu hartzeko eta 20 duro emango zidala. Horrela egin nuen D. Anizetok bere kargu hartuko zuela esan arte. Baina 1991. urte bukaera arte neronek egin nituen eta

gaixotu nintzenean utzi nion kanpai jotzeari.

65 urte elizaren alde aritu naiz lanean eta hemen agertzen dut nik jaso dudan dirua:

10 urtetan, 200 pezeta urteko=2.000 pezeta; 7 urtetan 300 pezeta urteko=2.100 pezeta; 7 urtetan 500 pezeta urteko=3.500 pezeta; 11 urtetan 1.000 pezeta=11.000 pezeta; 7 urtetan 3.000 pezeta=21.000 pezeta; 21 urtetan 16.000 pezeta urteko=336.000 pezeta. Denetara, 64 urtetan 375.600 pezeta. Azkeneko urtea, 1992, kobratu gabe.

Ez nuen diru konturik ikuitzeko asmorik, bainan jakin dut bai mezetan eta baita etxeetara banatutako idatzian, azaltzen direla apaizen eta sakristauren soldatak. Joan diren azken urte hauetan, zentimorik jaso ez dudanez, exijitzen dut argitzea nork kobratzen duen nere izenean eta zenbat. Aldi berean, orri horietan agertzen diren soldata igoera batzuk % 4rekin bat ez da tozte.

1989an, 116.750 pezetako igoera/1990ean 112.750 pezeta/1991n 97.000 pezeta/1992an 52.888 pezeta.

Zenbateko portzentaia igo dute?

Nerekin beti desconfiantzarekin ibili zarete. Eta nik galdetzen dut non dira nere arreba Maritxuren izenean eraman nituen 50.000 pezeta, 1988ko azaroaren 12an? Urteko likidazioan ez da azaltzen, ezta ondorengo urteetan ere.

Azken urte hauetan, ustez, lan guztiak beti bezala egin arren (ez dit axolik diruaren gora-beherak), pena handia eman dit esker bakarra disgustoak, mesprezuak eta beraien ondotik baztertzeko ahaleginak ikusteak.

"Bihotz berritu, lagun urkoarekin norberarekin bezala portatu behar dugula, elkar maitatuz" predikatzen du-

ten gizonaren exenplua al da? Non dute lotsa? Ez al zaizue bidezkoa iruditzen, elizan 65 urte egin ondoren, beste tratubat, errekonozimendu bat merezi dudala? Edo nirekin bakarrik lanak egiteko kontatzen duzue?

Ofizioko lanetik aparte, makina bat lan egin ditut. Zuk, Emeterio Jauna, inork baino hobeto dakizu zenbat lan atera dizuten esku artetik eta truke... mesprezu eta desconfiantza ugari.

Enpadronamendua, herriko base-rien zerrenda, jabe eta maizterren izenak, 30 urtetik gorako neska-mutilen zerrenda, artzairen zerrenda eta abar luze luze bat. Lan bakarra ez nion egin: esan zidan, ea lortuko nuen Amnistia- ren aldeko koadrilak gabonetan abes- tutako kantak. Pentsatu ondoren, berorrek lortzeko era izango zuela, irudit- tu zitzaidan. Hori izan da lan bakarra egin gabe utzi nuen.

Aipamen txiki bat bederen, aurreko idatzian salatzen nuen eliz terrenoari buruz: "Gastineri" bezala ezagutzen den parajearen egoera. Orduan luza- tzen nuen galdera berdina botatzen dut orain: Parroki batek ez al du bere hon- darea defenditu behar? Hobe zenuten eskatzen horrenbeste ibili orde, eliz hondarea hobeto zainduko bazenuteke.

Tristeia da apaiz bateri, Eliz Batzor- deari hau esan behar izatea, bainan be- netan eta bihotzez pentsatzen dut ez duzutela fin eta leial jokatu. Emeterio Jauna, huts handiak egin dituzu herri honekin, ez nirekin bakarrik. Frakasatu duzu.

Ez dut uste nere 65 urteko eliz aldeko zerbitzuen ordaina justua jaso dudarik (ez naiz ari dirutan pentsatzen).

Nire samina eta haserrearen ulertu eta nire atrebimendua barkatuko duzuela- koan, agurtzen zaituztet.



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea

☎ 882442-888901

Faxa: 888901

LAZKAO

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

**Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN**

Intereseko Telefonoak

LAZKAO

Udaletxea	886408
Ertzantza	887350
Anbulategia	888755/882632
Gurutze Gorria	272222
D.Y.A.	464622
Larrialdiak	880967
Suhiltzaileak	881362
Maizpide Euskaltea	889231
A.E.K. Euskaltea	889340
S. Prudentzio Ikastetxea	882630
S. Benito Ikastola	880800
Parrokia	880229
Sarasola Autobusak	880259
RENFE	880853
Polikiroldegia	160934
Goiherriko Euskal Eskola	160282



Errezeta



**Fco. Javier Villanue-
vak emana**
Kuko jatetxea
Ormaiztegi

EPERRAK EHIZTARI ERARA


Osagaiak: 4 eper, 4 urdai-
xerra, 4 tipula ez oso haun-
diak, 250 gr. txanpinoi, 2 dl.
ardo txuri, 2 dl. egindako
tomatea, gatza eta pipe-
rrautsa.

Eperrak urdaiarekin bil-
durik frijitu eta sutatik
kendu. Eltze batean, ondo

txikitutako tipula eta txan-
pinoiak gorritu. Ondoren,
eperrak gehitu eta ardo
txuriarekin busti. Gutxi-
tzen denean, tomatea gehi-
tu eta saldarekin estaltzen
da. 30 - 40 minututan egos-
ten utzi eta prest dago. Oso
suabea geratzen da.



Bota bertsoa



Alaitz Alustiza
Gaia: Gipuzkoako
Bertso Txapelketa
Doinua: Nafarroako
mendi gainetan

Hasierako fase haietan
hainbat bertsolari ziren
baina batzuek eliminatu
asko saiatu izan arren
epaimahaikoak aitzakiren bat
izan behar du bederen.
Oraindik ere ikusi behar
zenbat gauza gertatzen den.

Finaletara pasatu dira
bertsolaririk onenak
txit ezagunak izango dira
pasatutako gehienak
eta aurtengo txapel haundia
buruan jazen duenak
nere bi bertso hauxen bidez
zorianik beroenak.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfona: 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
Tfona: 88 80 29
BEASAIN



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak
zure sabelak esker-
tuko duen menua
eskeintzen dizu:

Astelehenetik osti-
ralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000
pzta. + BEZa

Toki mugatua dago,
eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

Debaldeko iragarkiak

Lana

□25 urteko neska euskalduna prest dago etxeko lanak egin, haurrak zaindu edo antzeko lanetarako. Esperientziaduna. 889521 - 886789 (Elena).

Etxebizitzak

□Zaldibian etxe adosatu bat dago salgai. Hiru logela, egongela tximenetarekin, sukaldea, bi bainu, ganbara eta garajea ditu. Deitu gaueko 9etatik aurrera 16 11 61 telefonora.

Salerosketak

□Kerosenozko berogailu bat erosiko nuke prezio onean. 88 14 06.



□Emakume Baserritarren Elkarteak (EBEL), Gema M. Arrugaetaren argazkiez osaturiko egutegia kaleratu du. Originaltasunez eta topikoetatik urrunduz. Emakumeek baserrian duten itzala erakutsi nahi da. 1.000 pezetan dago salgai Ordiziako Barrenan eta Foto Sistemak, eta Gaintzako Udaltean. Durangoko Liburu Azokan Jakinen estanean izango duzue aukeran.



Egutegiak



ANTZERKIA

✓ Lazkao:

Abenduak 1, 'Hika' taldearen 'Henry Bengoa inbentarium' antzezlan, Areria Zinemak, 21:00etan. Sarrera: 500 pezeta.

Abenduak 15, 'Bederen-1'ek 'Zu(t) gabe' lana antzeztuko du, Areria Zinemak, 21:00etan. Sarrera: 500 pezeta.

BERTSOAK

✓ Ordizia:

Abenduak 3, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa, Majori Kiroldagian, 17:30ean. Partehartzaileak: Jokin Sorozabal, Bixente Gorostidi, Maialen Lujanbio, Jon Eizmendi, Aitor Sarriegi eta Unai Agirre. Aurkezlea: Joxepa Madariaga. (Informazio gehiago 'Berriak labor' sailean).

ZINEA

✓ Beasain:

Abenduak 1, 'Alerta maxima 2' 19:30 - 22:15.

Abenduak 2, 'La locura del Rey Jorge' 19:30 - 22:15.

Abenduak 3, 'Star Trek, la proxima generacion' 17:00. 'Alerta maxima 2' 19:30 - 22:15.

Abenduak 4, 'Alerta

maxima 2' 19:30 - 22:15.

Abenduak 6, 'Waterworld' 19:30 - 22:15.

Abenduak 7, 'Waterworld' 22:15.

Abenduak 8, 'Waterworld' 17:00 - 19:30 - 22:15.

Abenduak 9, 'La flor de mi secreto' 19:30 - 22:15

Abenduak 10, 'Una pandilla de pillos' 17:00. 'La flor de mi secreto' 19:30 - 22:15.

Abenduak 11, 'La flor de mi secreto' 19:30 - 22:15.

Goieniz Zine Kluba:

Abenduak 14, 'Quieto, Muere, Resucita', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

✓ Ordizia:

Abenduak 1, 'Braveheart' 22:15.

Abenduak 2, 'Braveheart' 19:15 - 22:15.

Abenduak 3, 'Power Rangers', 16:45. 'Braveheart' 19:15 - 22:15.

Abenduak 4, 'Braveheart' 19:15.

Abenduak 6, 'Todo por un sueño', 19:30 - 22:15.

Abenduak 7, 'Dos policas rebeldes', 22:15.

BESTELAKOAK

✓ Lazkao:

Abenduak 12, Anastasia

'Quieto, Muere, Resucita' - Vitali Kanevski (SESB, 1989)

Pelikula hau, Soutchan ize-neko ekialdeko herriska batean dago kokatua, 1947an, estalinismoaren garaian atxiloteta eremu bihurtu delarik, hain zuzen.

Valerka eta Galiak hamabina urte dituzte. Beren bizitzan lehen aldiz majteminduko dira, gerlako gati bu japoniar eta sobietar komunaren artean. Txabola lo-kaztuen artean eta zelatariez inguraturik irmo eusten diote, algaraka eta adar joka, mundu anker honi. Gizaki helduak baino zailduagoak, zoriontsuagok eta indartsuagoak dira, etorkizun hobearikiko esperantza gordetzen saiatzen baitira.

Kanevskiren lehenengo luzemetraia autobiografiko honetan, errealizazio hutsune batzuk gora-behera, aipagarria da errodatzeko modu ezohikoa, esku finkoz gidatua, pantailan sortutako zirrara bereziaren bidez estalinis moko Sobietar Batasunaren egoera zinez irudikatzen zaigularik.

Larrea zegamarrak garai bateko kontu eta kantuak azalduko ditu, Maizpiden, 21:00etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

✓ Lazkao:

Abenduak 5, Blanca Fernandez de Landaren diapositiba emanaldia. Ecuador, Peru eta Galapago irlei bu-

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfno: 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

EROSKI KAFATEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA



Egutegiak



ruzkoa.
21:00etan.

Maizpiden,

rrilaren 8ra bitartean, IV. Aterpe Taberna Pinturako lehiaketan aukeratutako lan-
nen erakusketa, Aterpe Ta-
bernan.

HITZALDIAK

✓ Ataun:

Abenduak 15, trikitixari buruzko mahai-ingurua, Urbitarte sagardotegian, 20.00etan. Partehartzai-
leak: Laja eta Landakanda eta Zabale anaiak. Ondoren afaria izango da.

✓ Ordizia:

*Abenduaren 3ra bitar-
tean*, Luis de Veraren pin-
tura erakusketa Barrenan.

*Abenduaren 12tik
21era*, Estelaren ehun era-
kusketa Barrenan.

ERAKUSKETAK

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Abenduak 3, Orhi-
Otsogorriga (2.017 m.)

Abenduak 10, Petra For-
ca (2.390 m.)

Abenduak 17, Muru-
mendi.

Ordiziako mendizaleak:

Abenduak 3, Finalista-
ren eguna.

Idiazabalgo mendizaleak:

Abenduak 3, inguruko
herrietako gazteen ibilal-
dia.


Abenduak 17, Pagoeta.

GOARDIAKO BOTIKAK

Abenduak 1: Jauregi;
2-3: Atorrasagasti; 4: Laur-
naga; 5: Cuesta; 6: Arriola;
7: Urbizu; 8: Atorrasagasti;
9-10-11: Azpilikueta; 12:
Jauregi; 13: Lournaga; 14:
Cuesta; 15: Arriola; 16-17:
Jauregi; 18: Urbizu.



Ordiziako azoka



Hurrengo azoka asteartean

Ez zen nobedade handiegi-
rik izan asteazkeneko azo-
kan. Azaldu zen produktu be-
rri bakarra, kanpoko babak
izan ziren. 225ean saldu zen
kiloa. Gainontzean, aipatu
beharreko beste puntu bat,
datorren astean azoka astear-
tez egingo dela.

Onddoak oraindik ere
ugari. 60 bat kilo izan ziren,
kanpokoak guztiak, eta
2.500ean saldu ziren. **Ehiza**
gelditzen da zertxobait ere.
50 uso azaldu ziren eta
800ean saldu zen bakoitza;
100 birigarro 100ean; oila-
gorrak oso gutxi.


Arkumeari dagokionean,
95 buru azaldu eta 95ak saldu
ziren. Guztiak 500-525 pe-
zeta bitartean saldu ziren,
baina gehien-gehienak
500ean. Untxirik ere izan
zen. 3 zaku, 230 pezetan.

Produktu batzuk azaldu eta
besteak desagertu. Bertako
gaztaina, udara eta berenje-
nak aurtengoz agur esan di-
gute. Bestelakoan, **berta-**

koetan, kiwiak 200-300ean
saldu ziren; Bruselasko azak
225-300ean; lekak (Arama-
koak) 250-300ean; tomatea
oso gutxi, 250-200ean; bro-
kolia 200ean; azak, neurria-
ren arabera 60-175 bitartean;
mizperoak 300-400ean kilo-
a; eta karakolak, zientoa, 500
pezetan.

Kanpokoei dagokienean,
lehen aipatutako babez gain,
Valentziako alkatxofak
200ean saldu zen kiloak; gaz-
tainak 275-350 pezetan; eta
lekak, zertxobait behera egi-
nez, 350-400ean.

Arrainenetan prezioak
mantendu egin dira, ikusi
egin behar datorren astetik
aurrera noraino igotzen has-
ten diren. Legatza 2.120 pe-
zetan; antxoak 770ean; sardi-
nak 580an; txipiroiak, hauek
igo egin dira, 1.230 pezetan;
itsasoilarra 1.270ean; txitxa-
rroa 820-610ean, neurriaren
arabera; zapoa
1.050-1.380an eta bakailao
puskak 1.250ean.



✓ Beasain:

Abenduaren 3rarte,
Cruz Mari Martinez La-
rrearen argazki erakusketa,
Usurbe Antzokiko Erakus-
keta Aretoan.

Abenduaren 15erarte,
Martin Arruabarrenaren
erakusketa Aterpe Taber-
nan.

Abenduaren 11tik 17ra,
'EAJ Beasainen. 100 urte'
erakusketa, Batzokian.

Abenduaren 16tik urta-



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartza
Oletako kioskoan, Begue janaridendan,
Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustun-
tzan, Osasun belardendan, Muño denda
Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen
dendan, Arrondon.

**Segurako Erosle eta Idiazabalgo Alda-
nondon.**

IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN


elkarriketak guztion laguntza behar du

Gero eta gehiago dira Euskal Herrian bakea lortzeko biderik egokiena elkarriketa eta akordioa direla uste dutenak

3.000 bazkide baino gehiago dituelarik **elkarri** gizarte mugimendua lanean ari da egunero asmo hori egia bihur dadin.

baina ez da nahikoa


Elkarriketak guztion laguntza behar du.
Zuk ere laguntzeko aukera duzu.



Moztu kupoi hau eta helbide honetara bidal ezazu:
elkarri, Poeta Lizardi enparantza 2, tarteplanta. 20400 Tolosa

1. ☐ Bai, **elkarri**ren laguntzailea izan nahi dut.
Hileroko kuota (14 kuota urtean):
☐ 1.300 pzta ☐ 2.000 pzta ☐ 5.000 pzta ☐ 10.000 pzta
Aportazio bakarra:
☐ 10.000 pzta ☐ 25.000 pzta ☐ 50.000 pzta ☐ 100.000 pzta
(Laguntzaile guztiek **elkarri** eta **elkarrikasi** aldizkariak dohainik jasoko dituzte)
2. ☐ Bai, **elkarri** (hilabetekaria) eta **elkarrikasi** (trimestrala) aldizkariak etxean jaso nahi ditut.
Ordaintzeko era:
☐ 4.000 pzta (urtean behin) ☐ 1.000 pzta (3 hilabete behin)
3. ☐ Bai, **elkarri** gizarte mugimenduari buruzko informazioa jaso nahi dut (kasu honetan ez itzazu bete bankuari buruzko datuak)
- Izena..... Abizenak.....
Helbidea..... Herria.....
Herrialdea..... Posta kodea.....
Telefonia.....
Banku edo aurrezki kutxa.....
Sukurtsal helbidea.....
Sukurtsal zkia..... Kontu zenbakia.....

GO. XII/95



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEA BAZKIDE BERRIEN KANPAINA



Goierritarra aldizkaria lagundu nahi baduzu, egin zaitez bazkide
Urteko kuota: 1.500 pezeta.

Izen-abizenak:.....
Helbidea:.....
Herria:..... Tfnoa:..... Adina:..... NAN:.....
Lanbidea:..... Banketxea:..... Bulegoa:.....
Kodea:..... Kontu zenb:.....

Kirola omen

Ez zeuden Beasaingo futbolzaleak azkenputz izateko gertu eta aldatu dute entrenatzailea. Irabaztea da, nonbait, kirolean -eta beste edozer-tan, jakina- lege. Eta handienen pa-reko ezin bada izan, itxura egin behintzat. Entrenatzailea bidaltzen dute guztiek, zerbait egiten dutela erakusteko edo.

Gero, bizitzako lege jatorra ikas-teko, kirolgintza zein gauza egokia den eta abar guztiak entzungo dituzu. Horregatik, mundu honetan inor iza-teko, ez dakit nolako pertsonaia eta handikiak eredu gisa ipintzen diren bezala, kirola gogor egitea ere ikas-bide bihurtuko da.

Eta gure herriko mutil gazteek, futboleko taldean aritzeko, astean hi-ru entrenamendu egiten dituzte. Igandean partidua; hil ala bizikoa, galduz gero epelak entzun behar izan baitituzte behin baino gehiagotan. Neskak -beti izan dira eskasagoak, zer demontre- birekin konformatzen dira oraingoz, baina egin beharko du-te zerbait.

Garai batean, gizarajo guztiek gi-zon inportante izateko ametsa zuten bezala, gaur, "zuek hor eta ni hemen" (edo "han" aparte, hobeto) esateko ahalmena duen Olano bat izatea da helburu. Ez dago bestetan alferrik galtzeko denborarik.

✍ Antonio Berasategi

Nola ikusten duzu juradoaren legea?



Artzeiz Mujika
17 urte, ikaslea
Olaberrikoa

Sobornatuta egon daiteke. Jende prestatua behar da ondo eta gaizki egin den esateko, eta ez herriko edozein.



Juan Ramon Arratibel
36 urte, tabernaria
lazkaotarra

Kriston montajea da. Jurado izatea onartzera-koan baldintza batzuk onartzen dira, predispo-sizio batzuekin daude. Ni ez nintzateke joango.



Leire Reta
15 urte, ikaslea
lazkaotarra

Ondo dagoela ikusten dut, herritarren parte har-tzea egokia baita. Niri deituz gero, joango nin-tzateke.

Bitxikeria

Itsasondoko zenbait kontu labur

Entzun nituen moduan jartzen ditut:

"Itxesako eliza zarren 'Bidetako Ama' zeritzaion koadro bat omen uan. Bidezko asko bearbada an inguruan pasatuko ituan".

"Lenago, erribidea, beko plazako zubie pasatu eta Errezolatik gora joaten uan, Altza aldera. Auzolanean berritu bearra izan uan bide au askotan. Segurona Naparroko bidea uan, Bedaiotik Azkaratera jotzen zuala".

Esteban Otegi Goenaga (Valentzia) (Bere aita zenarengandik jasoak)

LIBURU AZOKA BEASAINEN

DISKO
BIDEO
JOKU

NON: Kale Nagusia, 25 (Anselmo Garmendia)

NOIZ: Abenduaren 15etik 24ra

ORDUTEGIA: Egunero 5etatik 8etara
Astearte eta larunbatetan goizez ere bai, 10etatik 1era

ANTOLATZAILE:
GOIERRIKO GOIZTIRI



LAGUNTZAILE:



Udaleko

Euskara

Batzordea



GENERALI
Aseguroak


IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

Ba al dakizu?



JESUS MARI ARTEAGA, PPko parlamentari ataundarrak ez du Euskal Herritik alde egingo, joan zen asteen bestelakorik zabaldu bazen ere. Zenbait informazioren arabera, ETA-ren mehatxuak jaso ditu Arteagak.

Jon Aizpurua Ataungo korrespondentsalak eman dizkigun datuen arabera, Jexuxmari Arteaga, Ataungo 'Piñane'n jaio bazen ere, 'Argi-indar' etxean, Zentralean eman zituen urte gehienak. Don Antonio maixuaren bigarren semea. Aita Gasteizkoa zuen eta ama, berriz, Trini, Piñanekoa. Jexuxmari bera, maixu egona da herrian, aitaren ordezkotza egiten. Maixu eta abokatu ikasketak egin ondoren, lehenbizi Hondarribian eta gero Donostian bizi izan da.

Politikan, Juan San Martin Ararteoaren laguntzaile izan zen eta ondoren, berriz, PPren Gipuzkoako zerrendan bigarren aurkeztu zen, Gregorio Ordoñez zenaren atzetik. Parlamentari dugu orain Gasteizko Legebiltzarrean.

ESKOLA PUBLIKOEN MAPAren proposamena aurkeztu berri du Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak. Goierri dagokionez, honela geldituko litzateke eskola mapa berria: Beasainen, 12 urte bitarteko ikasleak, Murumendira joan beharko dira. Loinazpek, 12tik 16 urte bitartekoak jasoko ditu. Beasaingoez gain, Olaberri, Ormaiztegi, Idiazabal, Segura, Zegama, Lazkao eta Ataungoak joango dira Loinazpera. Ordizia, Itsasondo, Zaldibia eta Legorretakoak, Ordiziako Oianguren Institura joan beharko dira.


AIZKORRI PARKE NATURAL bihurtzeko Diputazioren ordenazio planaren lehen zirriborroa kalean da jadanik. Planaren arabera, datorren urtean izendatuko dute Parke Natural, eta 12.000 hektarea hartuko litzuke, tartean Partzoneria handi osoa dela (Komun txikia ez) eta baita Araba, Zegama, Zerain, Legazpi, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako zenbait lur ere.

Hiru eremu bereiziko dira: erreserba osoak (goi aldeetako harkaitzak, batez ere); lurra pobretzeko arriskua dutelako nolabaiteko babes (arbola...) behar duten aldeak; gainera, orain arteko giza ekintzak eta esplotazioa neurritik eramateko arauak jarriko dira.


Parke deklarazioa egin eta gero, Patronatu bat sortuko litzateke, aldian aldiko gestio planak aurrera eramateko. Hor ere, sektore interesatu guztiek izango dute lekua, beti ere Iñaki Aizpurua Diputazioko Nekazaritza eta Ingurugiro Sailak teknikoaren esanetan.

GOIERRIKO GAZTE ASANBLADAK antolatuta faxismoaren aurkako zenbait ekintza burutu ziren azaroaren 18 eta 19an. Larunbatean, 'Tierra y libertad' pelikula eta 'Sharp' mugimenduko partaideen hitzaldia izan ziren Ordiziako Gazte-txean. Igandean talde faxistei buruzko erreportaia eta jarraian manifestazioa egin zen Ordiziako kaleetan, ia 1.000 lagunek hartu zuten parte. Egun berezi hauez gain, larunbatero-larunbatero hainbat ikastaro izaten dira Ordiziako Gaztetxean, 10:30tik 12:30era. Haria, buztina eta larrua lantzen ikasteko aukera du gogoia duen edonork.

ZOKKETARIK EZ, INTSUMISIOA! lelopean ehundaka gazte manifestatu ziren azaroaren 16an, Ordiziako kaleetan, GOTek (Goierriko Objeto Taldeak) antolatutik. "Oraingo honetan bereziki salatu nahi duguna zera da: hurrengo egunotan, PP eta CiUren babespean, PSOEren gobernuak intsumisioaren aurkako zigor neurri berriak aterako dituela kode penal berrian. Gero eta kamuflatuagoa den errepresioaren bideetik jarraitzea erabaki dute, gizar-tearen desmilitarizazioarentz eta zerbitzu militarra kentzearen aldeko apostua egin duen eta gero eta haundiago den gizar-te eskaerari begiak itxiz. Dirudenez, intsumisoak, torturazailak, GALEko kideak, ezkutuan gerra zikina diseinatzeko duen jeneralak edota bere bankuko diru-kutxak husten dituen bankariak baino zigor handiagoa merezi du", adierazi zuen GOTek. Era honetan, "gure esku dago zerbitzu militar edo OZS deituriko lege bati-



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN



● "Iberikoak", gaztak, foie-ak
● Errioxako ardo eta cava-k
Zumarralde, 2 ☎ 88 77 55 Faxa: 88 34 31
ORMAIZTEGI

Gabonetako
saskiak



keta horrekin bukatzea eta bide hone-tatik Euskal Herriaren desmilitariza-zioaren bidean sakontzea, ejerzitao deituriko gizarteko lakara honen abo-liziorantz", gaineratu zuen.

OTXOMIN BARANDIA-RAN ETA JOKIN IZAGIRRE etorri dira Ruandatik. Hilabete pasatu dute bertan oporretan, bertako hainbat eraikuntza lan egin eta bertako inguru eta gizartea ikusten. Gustora etorri dira eta berriz ere joango omen lirateke. Datorren alean izango dugu xehetasun gehiago.

OMUNDUKO ODOLKI LEHIAKETAKO finalistak izan zi-ren Jesus Mari Deba eta Pablo Murua ormaiztegiarrak. Bizkai erako odol-kien mundu mailako lehiaketa izan zen. Bizkai erako odolkiak gai hauekin egiten dira: txerri odola, gatza, porrua, tipula, arroza, txerri koipea eta bakoitzak aukeratutako espezieak. 46 odolki aurkeztu zituzten guztira. Finalera 7 pasatu ziren, Deba eta Murua haraki-nenak besteak beste. Iñaki Kanpose ormaiztegiarrak ere parte hartu zuen baina ez zuen finalean izaterik lortu.

GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETAko azkeneko finalaurrea Ordizian jokatu da igandean, abenduaren 3an, Majori Ki-roldegian, 17:30ean. Aitor Sarriegi beasaindarrarekin batera, Jokin Soro-zabal, Bixente Gorostidi, Maialen Lu-janbio, Jon Eizmendi eta Unai Agirre arituko dira lehian. Sarrerak 1.000 pe-zetan daude salgai (Bertsolari Elkar-teko Bazkideak 700 pezetan) honoko leku hauetan: Ordiziako Etxaniz taber-nan, Zaldibiko Illati tabernan, Laz-kaoko Gerriko Liburudendan eta Se-gurako Imazene jatetxean. Saio hone-tan jakingo da zein geratu diren sailka-penean 8 lehenengo postuetan; hau da, finalean parte hartuko duten 8 lagunak.

Aurretik beste bi finalaurreko jokatu dira Azpeitia eta Erreterian. Goierri-tarrak ondo aritu dira. Azpeitian J.R. Elorza ormaiztegiarra izan zen nagusi 608,5 punturekin, eta seguruenik, fina-lerako txartela lortuko du. Erreteriarako saioan, berriz, Iñaki Murua eta Mikel Mendizabal aritu ziren. Bigarren eta hirugarren egin zuten goierritarrek, 603,5na punturekin. Hauek ere, fina-lean izango dira ziurrenik.

CAF-Elhuyar Zientzi Dibul-gaziorako Sarietarako 37 lan aurkeztu dira guztira.

JOXE AZURMENDI beste lau egilerekin batera, 'Historia: zientzia ala literatura?' liburua idatzi du. Azurmendik nazionalismoaren eta kulturaren arteko harremana jorratu nahi izan du. Zegamarraren iritziz, abertzaletasuna ez da "Arana-Goiri-tarren asmakizuna".

EGUNKARIA TONBOLA martxan da aurtien ere. 100 pezetagatik sari ugari lortzeko aukera izango duzu. Saririk egokitzen ez bazaizu, boletoa ondo gorde, kotxe eder bat zozketatzen baita. Boletoak, ohiko lekuetan dituzue salgai.

FAB MUSIKA TALDEA bideo klipa grabatzen aritu zen joan zen astean Ordizian, ETBko Iparra saioan ateratzeko. Oianguko parkea eta Kiska tabernan grabatu zituzten irudiak. Martxa onean ari dira duela urtebete sortu zen talde hau. Euskadi Gazteko zerrendan punta-puntan dabilta goie-rritar (Drindots taldeko, Xabier Auz-mendi, Igor Oiarbide eta Migel Caba-llero) eta ingelesak (Stuart Kelling abeslaria).

SALVA IRIARTE beasain-darra Errealaren entrenatzaile postutik kendu dute, taldearen emaitza txar-rerengatik. Urtebete egin du Erreala entrenatzen, eta iaz denboraldi bukaera txukuna egin bazuen ere, aurtien ez du zorterik izan. Errealaren Idazkaritza tekniko barnean arituko da aurreran-tzean beasaindarra.



Tfnoa.: 80 16 99

Liernia Auzoa

MUTILOA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

Euskararen trena martxan da CAFen

Lan harremanetan euskararen erabilera bultzatzea du helburu, CAFek martxan jarri duen euskara planak. Batetik, ez dakitenei euskara erakusteko aukera ematen zaie. Bestetik, dakitenek, hizkuntza erabiltzeko ohitura sustatu nahi da. "Meritu handia daukate, ez baita erraza 8 ordu lan egiten eta beste ordu eta erdiz euskara ikasten aritzea", **Fermin Arrese, planaren arduradunetarikoa** batek dioenez.

Aspalditik dator enpresan euskara zabaltzeko edo areagotzeko asmoa. Langile ordezkari edo sindikatuen eta Zuzendaritzaren akordioaren ondotik, lehenagotik ere eman izan dira euskarako klaseak. Orain, ordeza, seriotasunez heldu dio gaiari enpresako sindikatu eta Zuzendaritzak. Elhuyar eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, euskara plan berezia martxan jarri zen CAFen aurtengo martxoan. Diagnostikoa egin zuen lehenengo Elhuyarrek Jaurlaritzarekin batera, egoera zein den eta zer egin daitekeen ikusteko. Aholkuak ere eman zituzten eta ordutik bideratu zen plan.

Hain enpresa handia izanik, plan bateraturik ezin zitekeela aurrera eraman zioen diagnostikoa. Gauzak honela, lehenengo esperientzia, enpresako gune euskaldunenean edo erdaldun-euskaldun arteko orekatuenean, eta aldi berean, lan harreman gehieneko gunean egitea erabaki zen; hau da, IV. Dibisioko Akabera, Elektriko, Ingenieritza eta Probakuntza sailetan. 300 lagun hartzen ditu sailak.

Jarrera ezin hobe

Diagnostikoa ondoren, langileen maila eta jarrera aztertzeke kontsultak egin ziren. Jarrera aldetik, emaitza ezin hobeak lortu dituzte Fermin Arrese, IV. Dibisioko zuzendariaren esanetan. 60 langile ez ziren plan honetan parte har-



Fermin Arrese IV. Dibisioko zuzendaria.

tzeko prest agertu. "Aztertu egin genuen kasu bakoitza eta erreakzio bezalako kasurik ez zen bakar bat ere izan. Eman zituzten arrazoiak denetik izan ziren: ustez zaharregiak izateagatik, nahiko euskara badakitela, beste egin behar batzuk dituztelako, hizkuntzak ikasteko errezasunik ez dutelako, lehenago ere euskara ikasten frakasatu egin dutelako eta euskara ikastearen beharrik ikusten ez dutelako", zehaztu digu.

Azterketetatik ekintzetara. Bi multzotan banatu zituzten ikasleak: zekitenak eta ez zekitenak. Euskara ikasten ari direnak 100 bat lagun dira. Hizkuntza mailaka sailkatu, eta astelehenetik

ostegunera, ordu eta erdiko ikastordua ematen zaizkie. Goizean goiz, eguerdian edo iluntzean, ordutegi aukera zabala dute.

Ohitura sortu

Gainontzekoak, euskaraz hitz egiteko gai direnak, komunikazio zirkuluetan daude. Astean pare bat aldiz elkartzen dira, ordu eta erdiz. Euskararen erabilera bultzatzeko departamentuan edo enpresan zer egin daitekeen aztertzen dute. Hortik proposamenak irteten dira eta ondoren, Zuzendaritza Batzordera eramaten dira. Fax eta lan harremanetarako orriak euskaratu dituzte jada. "Taldea hauek, lan beretsua egiten dutenak osatzen dute, beti begiraleren batekin. Helburu nagusia ez da beraien lana edo proiektua gauzatzea, baizik eta lan hori egiteko komunikatzeko erabili behar duten tresna erabiltzea". Azken batean, euskara egiteko ohitura bultzatu nahi da talde hauekin. Gainera, sorpresaren bat edo beste eraman du batek baino gehiagok. "Baina zuk ba al dakizu ba euskaraz?" esaldia ohikoa baitzen hasierako egunetan.

Komunikazio zirkuluetan emaitzak berehalakoak dira, "hurrengo egunean, euren artean euskara erabiliko baitute Barrera hausten da, askotan

erdaraz egiteko ohitura sartuta baitugu. Asko konprometitzen dira”, azpimarratu du Fermin Arresek. Ikasketa edo trebakuntza taldeetan ere berdin; ikasitakoa erakutsi egin nahi izaten baitute.

Giroa asko euskaldundu da CAFen eta plan horretan parte hartzen ari direnak oso arto sentitzen omen dira. “Beste departamentueko batzuen artean gainera, sortu da halako zelorik. Teknikoek esaten dutenez, hori positiboa da. Konplejo positibo hori sortu da”.

Seriotasuna

Itxaropen handiarekin daude guztiak. “Enpresa aldetik izugarritzko seriotasuna jarri behar izan dugu, ia lanordu adinako seriotasuna. Zerrendak, asistentzia, garapena... kontrolatzen dugu. Flexibleak bagara, baina nolabaiteko seriotasun batekin. Hau horrela izateko, zer edo zer ordaintzen da. Adostasun batera iritsi ginen denok plan honek serioa izateko. Enpresa busti egiten da, langileak busti egiten dira eta denok egin behar dugu lana. Ez dugu inor itotzerik nahi, baina zabartzerik ere ez”, esan du. Planaren helburua ezin liteke gehiegi mugatu. “Batzuentzat asko izango eta beste batzuentzat gutxi. Dena euskalduntzerik ez dago. Gure helburua, mugatua ez, baina exigentea da”.

CAFeuskaltegia

Elhuyarreko 4 irakasle (3 praktikan eta zuzendari bat) ari dira euskaltegi berezi honetan lanean. Migel Guridi zuzendariak adierazi digunez, ikasleak onak dira orokorrean, elkar laguntzen primerakoak, eta asistentzia punta-puntakoa. “Polito doaz. Gure helburua ez da maila handiko jendea lortzea, lanerako beharrezkoa den elkarrikeria bat aurrera eramateko eta ulertzeko maila duen jendea lortzea baizik”. Gainera, ohiko euskaltegien aldean badute abantaila bat gutxienik: “Lehenago hasten dira dakiten apurra erabiltzen. Euskaltegian klasea



Bitxikeria pozgarria

Material gelako arduradunak ez du euskararen planean sartzerik nahi izan. “Baina berak argi utzi zuen, euskararen erabilera onartzen duela. Euskaraz eskatuz gero, berak gaztelera erantzungo duela, baina onartzen duela. Ba, orain piskanaka euskara ikasten ari da, euskalduntze berezi bat egiten ari gara berarekin, konturatu ere egin gabe: hiztegi koskor bat egiten ari da, euskaraz nola esango dioten eta gaztelera esan nahia jartzen duena”.

Dokumentu teknikoak

Aurrerapausoak piskanaka-piskanaka

datoz. Euskararen erabilera areagotu dela nabari da. Baina egiteko asko dago. “Dokumentu teknikoak euskaratzen hasi behar dugu, aurrerapauso handia izango da hori, baina lortu egin behar da, zaila da. Baina gu abiatu gara eta presioa egin behar dugu horretarako. Ordenagailu bidez egiten dira dokumentuak eta orduan, programak euskaratu egin beharko lirateke. Horrek gastu handia dauka”.

Dena den, kontuan izan behar da euskaratzen diren dokumentuek, lan-tegiz kanpoko jendearengan eragina dutela. “Adibidez fax orriak. Guk erabaki dugu fax orria Euskal Herrian zabaltzea, baina baina, euskara hutsez bidaltzea; Euskal Herrian eta ingeles hizkera dagoen lekura bidali behar bada, euskaraz eta ingelesez; Espainia edo Hego Amerika bidali behar izanez gero, euskaraz eta gaztelera bidaltzea. Beraz, kanpoko jendea ere inplikatu egiten da”. Batzorde zuzendaria (Dibisiokoa) eta enpresa mailako zuzendaritza orokorra daude, komunikazio zirkuluetan egindako proiektua onartu, aldatu edo ez onartzeko. Hori bai, “behin onartuz gero, denok daukagu ardura erabakia martxan jartzeko”.

 Loinaz Agirre - Mikel Albisu

Ormaiztegiko jaien egitaraua

● Abenduak 1, ostirala:

11:00etan: Musika Eskolak eskainitako kontzertua Eleizan.

16:30ean: Enparantza Nagusia 'Hortzmuga' taldearekin umeentzat dantzaldia.

18:30ean: Umeentzat txokolate jana.

22:00etan: Herriko gazteek antolatutako Rock Kontzertua, Frontoizaharrean.

● Abenduak 2, larunbata:

10:00etan: II. San Andres Artisautza Erakusketa Zumalakarregi Enparantzan.

12:00etan: Polikiroldegian hasi eta herriko kaleetan zehar, Umeen tanborrada.

16:00etan: Jubilatuentzat mus, puntu, toka eta bote txapelketak, Jubilatuen Egoitzan.

16:30ean: Umeentzako zinea.

19:00etan: Mozorroren desfilea, Koxkola txarangaren laguntzaz, Polikirol-



degitik abiatuta.

22:00etan: Polikiroldegian Trabuko taldearen dantzaldia.

00:05etan: Mozorro onenentzat sari banaketa.

00:30ean: Mozorroren dantza.

03:30ean: Karaokea, Kultur-Etxeko aparkalekuan.

● Abenduak 3, igandea:

10:30ean: Txistularien goiz erezia herriko kaleetan zehar.

12:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: 23 urtez azpikoen, Kade-teen eta Gazteen XXXI. San Andres Ziklo-kross saria.

13:00etan: Egun guztian zehar etxeko txikientzat gazteen parkea.

18:00etan: Zubipe Polikiroldegian pelota jaialdia.

21:00etan: Aurtengo jaien amaiera.

OHARRA: Egunero Ormaiztegiko lehengo irudiak (festak, gertaera garrantzitsuak...) izango dira ikusgai, Angel Elorzaren eskutik, Kultur Etxean.



**ORMAIZTEGIKO
UDALA**

Bizilagun agurgarriok:

Eguneroko jarduna alde batera utziz, poza eta alaitasuna nagusitzen zaizkigun egun hauek, zuei guztioi agur bero bat bidaltzeko aukera eta atsegina eskeintzen didate.

Gure parte-artzearen bitartez ahalegindu gaitzen egun hauetan alaitasunak eta baikortasunak utz ez gaitzaten, eta jarrera horrek urte guztian zehar elkarbizitza on bat lortzen lagun diezagula.

Festa zoriontsuak guztioi.

Martin Perez de Albeniz (Alkatea)

**KALITATEKO
EUSKAL
OKELA**



**IÑAKI KANPOS
AUTOZERBITZUA
EROSLE**

✕ Bertako haragia
✕ Odolki txorizo eta
tripaki bereziak

Zumalakarregi, 4

☎ 88 28 27

ORMAIZTEGI

**SAN ANDRES
GARAJEA**

**AIMOSPORT
COMPETICION**

*Automobilismo kirolerako
behar den guztia*

☎ 88 28 15

Zumarralde, 8
ORMAIZTEGI

ITSASO

apaindegia

**ileapaindegia
estetika
masaiak**

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu!*

San Andres, 31

☎ 88 06 24

ORMAIZTEGI

Martzelino zenaren umorea

Herriko festak gainean eta "zerbait" motx-motx kontatzeko, bada, ormaiztiarren entretenigarri. Motzarenak ematen ditu lanak bat bete-betarik dagoenean. Halaxe nago-ta ni, bete-bete eginda, herriko pasadizo xelebrez. Aspaldi hontan, izan ere, kontu zahar umoretsua elemena entzuteko zoria izan dut kalerik kaleko lagunartean. Badirudi, ikusi batera, gaur egun dena dagoela negar-albiste; antxinako denboratan, ordea, dena, nonbait, parrerako txiste. Eta, beraz bada!, zer hoberik istori zaharrak berritzea baino...?

Gaurkoan bi esango ditut, motz-motzean, Martzelinorenak. Gainerakoak (hainbeste dira...!) etorriko dira txandan-txandan. Danborren karabinarenak, Gorriren eskopetarenak, zerako zeraren zerarenak... Ez dauzkate herrian ahaztutzakotzat askomoduzko komeriak.

Etorri da Pasaiatik Azurmendiñera lanera gizonezko begi oker bat. Bada-kizue herrietan istoriak nolatsu izaten diren eta, begiaren okerra aitzakiatzat



hartuta akaso, egin zaio sobrare salatari fama. Fama gaiztoa. Auskalo halaxe izango zen ere. Herriaren begiak ez baitute beti-beti zuzen begiratzen; ezta begian okerrik gabeari ere. Kontuak kontu, kustioa da egin duela herrian halamoduzko fama. Behin fortunatu zaio Martzelinori aurrez-aurre (ez zuen aidanean Pione zaharretik aparte izan behar) eta, isilik egon ezinda, erasan dio hitzez, eta inguru haundian beste inortxok ez bezalako graziaren bitsez:

*Ezautzen degu Pasajes,
kontuz ibili pausajez!
Etorri zea honea noski,
baina hartuko 'ittuzu makiña bat osti!*

Beste behin, berriz (ez dakigu, bada, Martzelinok berak hizpidea emanda, ala Don Gasparrek xirikatzeko-edo hitza aterata), hasi dira biak behintzat Josafateko zelaiaren gainean hizketan. Don Gaspar bera gizon jantzia kontu haietan eta zer esan behar ote zion gizon arlote harek, egingo zuen bere artean... Xaguak asko badaki ere gehiago, ordea,

katuak eta, hala behintzat esanik izan behar zion Martzelinok azkenean:

*Han e izango die:
onak eskubiñ, txarrak ezkerren,
eta gu bezelako tontok bazterren!*

Don Gasparri irriparrea ez-ezik, ekarri izan digute gerora Martzelino haundi haren hitzok parrea ugari eza-gutzeko ditxa euki genuenoi. Umorerik bageko etxean pozak ez omen du kabi-darik eta hala fortuna dedila Ormaiztegin San Andresotan. Zorionak herri-tar guzti-guztiei, etxean nola bestean ere direnei!

 **Telleriko Jexuxmari**

KEMEN



KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 88 51 68
ORMAIZTEGI

SAGARNA
ARRANDEGIA

☎ 88 68 73 (denda) ☎ 16 02 01 (etxea)
Zumalakarregi, 4 ORMAIZTEGI

EKAITZ
Taberna

Gabiri-alde
Ormaiztegi ☎ 88 27 71

ESTANKO
janaridenda

- Egunkari eta aldizkariak
- Opariak
- Eskolako gaiak
- Mertzeria

Festa onak pasa!

☎ 88 77 24
Serapio Mujika Plaza, 3
ORMAIZTEGI

Eliza eta Zumalakarregi Museoa eraberriturik

Festa ingurua, azkenaldi honetan Ormaiztegin egin diren eraberritze lanak inauguratzeko aprobetxatuko da. Batetik, San Andres izena daraman eliza; eta bestetik, Zumalakarregi Museoa. Hasiera batean museoa San Andres egunez inauguratzekoa bazen ere, lanak luzatu egin zaizkienez, abenduaren 15erarte atzeratu dute.

Eliza

Orain urtebete ekin zitzaion San Andres eliza berriatzeko lanei, elizaren egoera nahiko txarra baitzen. Goitik behera, hango eta hemengo txokoak eraberritu dituzte. Teilatu, zoru, al-dare, sakristi... guztiak izan dira berriak. Lan batzuk kanpoko langileek egin dituzte, beste asko eta asko, berriaz, garai bateko ereduari jarraituz, auzo-lanean eginak izan dira. San Andres egunean izan zen inauguraketa, eta agintari ugari izan zen bertan.

Kanpoko enpresek egin dituzte lan garrantzitsuenak, edo premiazkoenak behintzat. Teilatuen konponketa horren barruan zurezko egituraren be-

rrikuntza osoa egin dute; baita teilak jarri ere. Eliz atarian enparantza aldeko horma bota da, argitasun gehiago lortuz. Elizako jatorrizko itxura erabat aldatzen zuen sakristi berria ere bota eta haren ordeaz berdegunea jarri da. Hormetako harriak gabitu, iturgintzari dagokion guztia berritu, eta hezetasunari aurre egiteko drenajea sartu dute.


Elizaren barrualdean, berriaz, ondorengo lan hauek egin dituzte kanpoko enpresek: Sakristia Kapilan

bihurtua dute. Dena txukundu eta zerbitzurik beharrezkoenak jarri dira. Aldarea itxuraberritu dute. Erdiko 'anboi' a kendu eta goiko aldean jarri dute. Aldi berean, bataiorako pila ezkerreko aldean kokatu izan da. Sedeak konpondu egin da, 'altilo' moduko bat jarri bertan eta meza emaileentzako eserlekuak kokatu dituzte. Argi instalazio guztia berria jarri da, behe-tik hasi eta kanpantorreraino. Megafonia dena ere berria jarri dute. Eta eliza guztia margotu, zorua lijatu eta barnizatu dute.



SEI IZARRETAKO BIDAIA

IRIZAR, K.E. MUG-ak, XXI mendeko ibilgailua den Century-a sortzean, etorkizunari aurrea hartu dio. Delako ibilgailua, I+D ekipoa eta ekoizpen prozesuaren uztartze bikainaren emaitza da. Izan ere, ordenagailuaren bidezko fabrikazioak kalitate aerodinamikoak, ziurtasuna eta erosotasuna eskaintzen dizkio, arloaren abangoardian kokatuz. Zigilatze-sistema berriak bere efikazia zein iraupena azkartzen ditu, mantenimendu, aerodinamika eta kontsumoari esker errentagarritasuna ere bermatzen delarik.



San Andres 6-8, 20216 ORMAIZTEGI
Tel.: 88 19 00 - 88 16 50. Fax: 88 91 01



Ormaiztegin

Auzolanean burutu izan dituzten lanak ere ugariak izan dira. Egurrari dagokionez, zoruaren ustelduta zeuden haga edo biga eta kapiroien ordeztuak, berriak jarri dituzte. Eliza, koru eta sakristian zurezko frisoia jarri da. Berogailuaren instalazioa eliz barruko zoruaren azpitik sartu da. Era honekin, bi alboetara azkarrago zabalduko da beroa. Eliz atarian lehen zegoen zoruak kendu eta harrizko berria jarri dute. Pintura eta irudi errestiturazio lanak egin dira. Koruan, Sakristia... pintura lan desberdinak burutu dituzte. Irudiei dagokionez, berriz, Kalbarioak, Kristoa, Ama Birjina... errestituratuak izan dira.



Zumalakarregi Museoa

Abenduaren 15erako prest egongo da Zumalakarregi Museo eraberritua inauguratzeko. Tomas Zumalakarregi jeneral karlista ormaiztegiarraren irudiaren tratamendua indartu eta bere kontestuan sartzea du helburu eraberritze lan honek. Museo guztian zehar, bai beheko pisua, bai goikoan, isladatzen da Karlismoko pertsonairik garrantzitsuenaren irudia.

Kontestuari dagokionez, Zumalakarregiren garaira egingo dugu atzera, Aintzinako Erregimenaren bukaera eta liberalismoaren hasierara. Pertsonaren datuak sartzeaz gain, garai hartako kontestua isladatzen duten

elementuak sartu dituzte. Bideoak, soinuak, irudiak, argiak... guztiokin, Zumalakarregiren garairano gertaturiko da ikuslea.

Bestetik, jeneral karlistaren irudiaren tratamendua indartzeko, zenbait elementu berri sartu dituzte, uniforme eta armak tarteko. Xabier Kerejeta Zumalakarregi Museoko arduradunetarik batek adierazi digunez, "Karlismoaren historia Zumalakarregirekin laburtzen da".

Hau guztia eta gehiago jakin nahi izanez gero, XIX. mendeko gizartera hurbildu nahi izanez gero, astelehenetik larunbatera duzue Museoa ikus-

teko aukera. Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 15:30tik 18:30era.

Saio bereziak

Xabier Kerejetak jakitera eman nahi izan digunez, hilean behin, larunbat goizetan, Segura Irratiko 'Ai Geala' irratsaioan, saio berezia egiten dute Goierriko pertsonaia historikoen inguruan.

 Aitziber Murua

ARANTXA

taberna

Pintxo eta ogitartekoak

San Andres, 13

Tfnoa.: 88 28 22 ORMAIZTEGI



JOSETXO

San Andres, 31

☎ (etxea) 88 27 72

(arrandegia) 16 13 66

ORMAIZTEGI

MURUA harategia

- Bertako haragia
- Odolki eta txorizoak

Maiora plaza
ORMAIZTEGI

☎ 88 27 64

ITXUNE ERRETEGIA



- Taberna musikala. Ostiralero zuzeneko emanaldiak: trikitixa, rock, jazz, antzerkia, e. a.
- Etxeko sukaldaritza
- Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.500 pzta. batzaz beste

Gabirialde, 14

☎ 88 73 51 - 88 89 92

ORMAIZTEGI

ALTZAGA

Olagi sagardotegiaren irekitzea

Altzagako herriko enparantzan dagoen Urruti Behera baserrian, Jose Antonio Olano eta bere emazte den Mari Jose Arregik datorren astelehenean, abenduak 4 sagardotegi berria irekiko dute. Horretarako ikusteko hobekuntzak egin dituzte. Garai batean bertako ikuilua zen tokian, 100 bat lagunentzako lekua duen jangela bat, sukalde eder eta haundi bat bere parrila eta guzti, sei kupelez osaturiko upategi bat, gizon eta emakumeentzako komunak eta barra txiki bat kafea hartu nahi dutenentzat, egokitu dira.

Dena oso txukun eta dotore jarri dute, zoruak, harriak ageri diren paretak, lehen zegoen egurrezko sapaia, ez da ez txantxetako berrikuntza burutu. Baita ere, berogailu sistema bat jarri dute, emakumezkoak kexa ez daitezen.

Upategian 6 kupel jarri dira, 2.500 litroko 4 kupel gaztain-egurrez eginak eta 2.200 litroko 2 kupel inoxidablezkoak, sagardoa garaiz kanpo ere das-tatu ahal izateko.

Negu garaian sagardotegi bezala irekiko badute ere, gainerantzean erretegi bezala, etxeko otorduak emanez funtzionatuko du, hau da, urte guztian zabalik egongo da. Famili artean konponduko omen dira bertako lanak egiteko, senideak ere laguntzeko prest omen dituzte eta.

Uda garairako, berriz, atarian zenbait mahai eta haurrentzako jolastoki bat jartzeko asmoa daukate. Udalarekin lorturiko akordio baten bidez apar-kaleku batzu egin ahal izango dira.

Jose Antoniok betidanik ezagutu



izan du sagardoa bere baserrian, eta orain dela dozena bat urte ikuiluan zeuzkan esne-behiak kendu zituenean, belardi eta soroei ze etekin atera zezakeen pentsatzen hasi zen. Horrela orain dela sei bat urte sagarrondoak aldatzeari ekin zion, gaur egun dituen 1.080 landaretara iritsi arte. Denak sagardo motakoak, hamar barietate desberdin, Hondarribi eta Ataungo mintegietatik ekarriak, eta "eje central" eta "baso" deritzaien formakuntzatan jarriak.

Lan haundia ematen diete, ipurdiak atxurtu, kimatu, lora garaian zaindu, etab., baina gustoko tokian aldaparik ez. Lehendabizi aldatutako landareak jadanik aleak ematen hasi dira eta momentuz bere kupel guztiak betetzeko adina ez bada ere, laister izango dela pentsatzen du. Zenbait ikastaro burutu ahal izan dituzte: sagar landaketa eta

zainketa, sagardoaren transformazioa, sagardotegiko makinariaren garbiketa, etab.

Goierriko herrietatik sagarrak ekarri eta orain dela bizpahiru urte hasi zen berriro etxean sagardoa egiten. Horretarako tolare hidrauliko berria jarri zuen. Ikastaroan ikasia eta zaharren esana lotu eta ekin zion bere lanari.

Dagoeneko beren etxeko atea zabaltzeko dena prest dute, aurtun uzta ona izan omen da eta kalitate oneko sagardoak izango omen dira, oraindik goiz denez, upel guztiak bere puntura iritsi ez badira ere.

Senar-emazteak ilusio haundiz dabiltza eta astelehen gauerako gonbitea luzatzen dute (sagardo dastaketa dohain izango da).

 Pako Zubeldia



LANCIA
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



Asto kaleko festak umore ezin hobean

Joandako asteburuan Elkano kaleko festa bitxia dastatzeko parada izan genuen. Bitxia diot, tradizioari jarraiki kaleari ezizena ematen dion ekitaldia egiten dutelako oraindik: asto lasterketa handia. Urtero bezela jende ugari bildu zen larunbat eguarian, denak ere barre piskat egin asmoz. Bi asto ibili ziren zein baino zein, "Patxiko" batetik eta "Sarita" bestetik. Guztira 3 lasterketa burutu ziren. Lehenengoan "Patxiko" izan zen garailea Iñaki Olea bizkargainean zuela. Honek Kopa, txapela eta praka batzuk eskuratu zituen. Bigarrenean, berriz, "Sarita" nagusitu zen Mikel Otegi hokey moduan zuela. Sarria txangurro bat eta kopa. Azkenean, berriro "Sarita" "Patxiko" baino aztiago ibili zen eta Imanol Etxenikerekin garaipena lortu zuen. Jendea bitartean lasterkariekin gozatuz, izan ere nori ez zaio gustatzen noizbehinka besteen kontura barre-algarak egitea? Ba, larunbatean umorea nagusi izan zen Asto Kanean. Ea hemendik aurrera ere antolatzaileek lanean tinko dirauten, ikuskizunak merezi du eta.



tokatuko ez balitzaizu ere zu lasai, gorde boletoa eta urtarrilaren 17an zozketatuko den kotxe baten jabe izan zintezke. Ea zorterik duzun eta euskarari eta Egunkariari lagunduz afari lege bikain bat egiteko aukera duzun.

Liburu eta disko azoka

Goiztiti AEK euskaltegiak antolatuta, euskal liburu, disko, bideo eta joku erakusketa zabaldua egongo da abenduaren 3 bitartean. Iaz bezelaxe Enparantza Nagusiko Abaria etxea erabiltzen ari dire horretarako. Erakusketa egunero egongo da zabalik arratsaldeko 5etatik 8etara. Asteazken eta larunbatetan, berriz, baita goizeko 10etatik ordubata bitartean ere.

Ordiziar atletak Hernanin

Azaroaren 19an, "Adarraga Memoriala" zela eta, Hernani aldera hurbildu ziren Ordiziako Atletismo taldekoak. Eta merezi izan zuen, proba ona egin baitzuten ordiziar korrikalari gehienek. Beteranoetan Gotzon Auzmendik 3. postua lortu zuen nahiz eta lesio luze

batetik atera berria izan. Alebinetan Garbiñe Etxezarreta hirugarren, infantiletan Iker Zudaire bigarren eta Gorka Satrustegi hirugarren. Taldeen arteko sailkapenean nagusi izan ziren gainera ordiziarrek maila horretan. Federatuei dagokienez, Iñigo Jauregi 9. izan zen kadete mailan, Alaitz Eguren 5. jubenetan eta seniorretan Susana Martin hirugarren.

Aurrekontuak buzoiratuak

Udaletxeak aurrekontuan sartu dituen partiden berri izateko aukera izan dugu herritarrok, orain gutxi buzoiez-buzoi banatuak izan baitira. Orri hauetan 1995 urterako Udalak pentsatuak dituen gastu, sarrera eta inbertsioen berri ematen da. Inbertsiorik handienak Enparantza nagusiaren konponketarako eta rugby-zelai berriarentzat zuzenduak doaz, bakoitzarentzat 25 milioirekin. Guztira inbertsioak 117 milioi ingurukoak izango dira aurrean Udalak kalkulatu duenez.

 Aitor Calvillo

BERRIZ ARANBURU
ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. 886070
BEASAIN

Eskolan zer? 23 ume behera?



Kezkak eta zalantzak Eskolan, zorio-neko Eskola mapa dela eta ez dela. Jaurlaritzak nahi duena betetzen bada, 7. eta 8. mailako eskolumeak Beasaingo Loinazpe ikasketxera joan beharko dute, datorren kurtsoetik aurrera. Herrian 23 umeak joan beharko dute kanpora. Aurten 6. mailan dauden 13k eta 7. nean dauden 10ek.

Logse erreforma behetik gora ari dira aplikatzen, aurten 6. maila harrapatu du eta hurrengo kurtsoan 7.a hartuko du. Zortzigarren mailakoak ez ditu harrapatzen baina hauek ere Beasaina joatea nahi du Hezkuntza Sailak.

Ataungo Eskola Ikastetxe Publikoa da. 124 haur dabilta guztira. Eskolak hau eskatuko dio Hezkuntza Sailari: Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloa (orainarteko OHO-EGB-ko 7 eta 8) Herri Eskoletan ematea eta D eredu (euskara hutsezkoa) garantizatzea. Hau eskatzeko, Siadeco etxeak egin zuen azterketa jarriko du mahai-gainean Herriko Eskolak. Momentuz behintzat, "era transitorioan" bi mailak hemen mantentzea nahi da.

Eskola Mapa ilbeltzaren 10erako onartu nahi da eta ez dago behar hainbateko denborarik. Jaurlaritzak nahi duena betetzen bada, Beasaingo Loinazpen, Zegama, Segura, Idiazabal, Lazkaoko San Prudentzio, Beasaingo Murumendi eta Ataun elkartuko dira. Klaseak goiz eta arratsalde baldin ba-

dira, bazkaria eta garraioa Jaurlaritzaren kontu izango dira, baina bakarrik Loinazpera joanez gero.

Ume gutxi izateak omen du errua. Baina gerora ume asko jaiotzen bada ere, erabat itxita geldituko da atea eta 12 urtetik gorakoak herritik kanpora joango dira.

Bi langile berri

Beteitu Errik, bi lanpostu berrik. Kanpoko lanak eitteko. Joxemari Otaño Agirre, Billabonakoa artu due. Administrazio-laguntzailetako beiz, Arantxa Garmendia Mujika, lazkaotarra. Abendun 11n asiko die lanen.

Onenbestez, 7 langile ditte Errik plantillan. Batetio funtzionariok: Idazkarie, 2 administrazio-laguntzalle, alguazille ta operarioa. Bestetio beiz, 'personal laborala': Garbitzallea eta gizarte-laguntzallea. Au, bostetik biko lan-eunen. Garbitzalle postue, oi da Udalan asmoa, enpresa baten esku geituko, datorren urteti aurrea.

Neskak bikain

Ez dira amutsak Areto-futbolearen ari den herriko Urbitarte taldea, ikaragarriko sasoiaren daukagu. Azken hiru hilabeteotan ez du partidu bakar bat galdu eta orain Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko txartela lortu du. Hor Gipuzkoa-

ko 8 talde onenak egongo dira. Aurreko asteburuan, partidu oso ona jokatu zuten Urretxun, Goierri taldearen aurka. 2-1 irabazi zuten eta esperantza handia dago orain Gipuzkoa osoan ere, zerbait egingo duena.

Eta mutilak zer? Ez dira neskak adina, baina ondo ari dira. Azkeneko 3 partiduetan irabazi dituzte eta bigarren doaz. Igotzeko fasea jokatu dute ia seguru eta orduan erakutsiko dituzte hortzak.

Jakin beharrekoa

Galdetu egin digute eta erantzuna zor diogu. Ataun, Gipuzkoako 7. herria da luze-zabalean. Goierri herririk handiena. Gipuzkoan berak baino handiagoak dira, ordena honetan: Oñati, Bergara, Donostia, Azpeitia, Oiartzun eta Eibar. Ataunen atzetik datoz, Elgoibar, Aia, Azkoiti eta Deba. Ataunek 58, 59 kilometro karratu ditu. Goierri Ataunen atzetik, Zegama, Beasain, Idiazabal eta Ezkio-Itsaso daude.

Heriotza

Azaroaren 20an hil zen, Izaskun Sanpedro Agirrebengoa, Lizardi etxean bizi zena. 57 urte zituen. Sentimenduan lagun familiakoak.

 Jon Aizpurua

Arrano Kultur Elkarteak babarrunetan txapeldun

Tolosan joan zen larunbatean ospatu zen babarrun lehiaketan (prestaketan alegia), Arrano Kultur Elkartearen izenean aurkeztu zen Jose Manuel Soroiz legorretarra izan zen txapeldun. 20 sukaldari aurkeztu ziren lehiaketara, eta bost ordu inguru behar izan zituzten babarrunak prestatzeko. 92an ere Jose Manuelek irabazi zuen txapelketa. Itxura denez, familiatik datorkie Soroiztarrei babarrunak prestatzeko dohaia, bere anaia Jose Lorentzok bigarren egin baitzuen. Hirugarrena ere legorretarra izan zen, Martin Garmendia.

Igartza saririk ez

II. Abentura eta Misteriozko nobela sariketan aurten saririk ez ematea erabaki zuen epaimahaiak azaroaren 24an. 6 lan aurkeztu dira, eta epaimahaiaren arabera, ez zuten beharrezko baldintzarik betetzen. Pako Aristi, Jose Mari Iturralde eta Koro Nabarrok osatu dute epaimahaiak. Sariketa, berriz, Beasaingo Udalak, CAFek eta Elkarrek antolatzen dute.

Odolkien erregea

Kepa Loidi oriotarra dugu azaroaren 18az geroztik, odolkien errege berria. 26 harakinek hartu zuten parte lehiaketan. Aurten lehenengo aldiz, kanpora, herritarrengana gerturatu nahi izan da odolki lehiaketa ospetsu hau, eta arrakasta handia izan zuela esan digute antolatzaileek. Gainera, data aldaketarekin (lehen otsailaren 5, Loinaz San Martin egunaren, inguruan egiten zen) kalitatea urtetik urtera hobegotuz doa. Kepa Loidi harakinak 25 urte darmaizki odolkiak egiten, asteen 100 bat kilo egiten omen ditu. Sekretua, produktu feskoak erabiltzea omen datza.



Odolki erregea, Kepa Loidi. Arg: J. Unanua

Orain, otsailaren 5ean egingo den bazkari handirako egin beharko ditu odolkiak.

Kirol begirale ikastaroa

Azken urteetan zehar, kirola oso aipagarria izan da ikastetxeetan. Ikastorduen barruko beharrezko kirol orduetz gain, haurrek kirol ezberdinetan parte hartzen dute ikastetxeetan bertan. Ikastorduetatik kanpoko kirol prestakuntza, lan horretarako prest zegoen edonoren esku egon izan da orainarte, bai guraso zein irakasle ohien esku besteak beste, eta beraiek betetzen zuten kirol teknikari lana. Egoera hau piska bat aldatzearen, eta kirol bakoitza behar bezala irakas dadin, kirol elkarte federatu bakoitza dagokion kirolaz arduratzea beharrezkoa ikusten dute kirolaz arduratzen diren erakundeak. Hori dela eta, begirale ikastaroa antolatu da Antzizar Kiroldegian. Ikastaroan kirolaren inguruko gaiak jorratuko dira, besteak beste, kirol kontzeptua irakaspen bezala, kirol entrenamendu batek zer suposatzen duen, psikopedagogia, kirol irakaskuntza banaka zein taldeka, eta kirolaren estruktura Beasainen.

San Nikolas

Aurten ere San Nikolas eskean arituko da 'Euskaldunon Egunkaria' ren alde. Trikitilari eta bertsolariekin, giro onean, Beasaingo kaleetan, 'Egunkaria' rentzako diru piska bat ateratzeko asmotan. Zita, San Nikolas egunean, abenduaren 6an, Barrendain Plazan (Geltokian), 19:00etan.

Liburu azoka

AEK-k antolaturik, abenduaren 15etik 24ra, liburu, disko, bideo eta joku azoka dago aurten ere Kale Nagusiko 25ean (Anselmo Garmendiaren dendan). Ordutegiak hauetxe dira: egunero 17:00etatik 20:00etara. Astearte eta larunbatetan goizez ere irikita egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

EAJ Beasainen

'EAJ Beasainen. 100 urteko historia: 1895-1995' liburua egin du Miren Barandiaran Contreras beasaindar gazteak. Liburuaren aurkezpena abenduaren 14an egingo da, Batzokian, 20:00etan.

Akatsa zuzenduz

Beasaingo Emakume Elkarteak bazkideei barkamena eskatu beharrean gaude, GOIERRITARRAREN 80. zenbakian Beasaingo kronikan eginiko hutsa dela eta. Bertan, elkarteak "gizonezkoen bazkidetza onartzen" duela azaldu bagenuen ere, Asmubekoak zuzendu dutenez, "gizonezkoen partaidetza ezinezkoa da emakume elkarteak baita". Hala ere, Asmubek antolaturiko ekintzetan parte hartu dezakete hala nahi izanez gero.

 Izaskun Salazar - L.A.

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak: 880243 - 880133
BEASAIN

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfnoa: 880543 BEASAIN

TAPIZ ETA GAINETADURA
TAILERRA

B i O K , c . B .

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

Abenduko santu festak

Azaroak 30, San Andres eguna, aste horretako igandean ospatu izan da izen bereko ermittan. Aurten abenduaren 3an izango da. Ermitta hau herriko lehenengo parrokia izandakoa da, honen inguruan baitzen gaur egungoa sortu aurreko herria. Herriko eraikuntzarik zaharrena den honetan, 12:30ean emango da auzoko hildakoen aldeko meza. Ondoren, Udaletxearen laguntzaz eskeinitako hamaiketakoa eta herriko txistularien saioa elizatarian. Bertara hurbilduko denak, zenbait berrikuntza eta aldaketak ikusi ahal izango ditu. Guztia Elizbarrutiko arte erlijiosoko arduradunaren Koldo Apeztegiaren erizpideak jarraituz egindakoak. Berriztatze lanak, berriz, Sindy Santiagok, arte aplikatueta irakasleak burutu ditu.

- Aurtengo ekainean 2. berriztatua eman zitzaion egurrezko gurutze gotikoa barrotepean jarri da, San Bizenteren irudia zegoen aldrean. Hau, berriz, aldare ondoko paretean, peana batean ezarri da.

- Orain arte paretean sartuta peana funtzioa eginez egon den hilarria bertatik atera eta oinarri mugikor bat eginda ermittaren alde batean jarri da. Hilarri hau, oraingoz herrian ezagutua den 5garrena da.

- Aldare funtzioa bete izan duen eta pipiak jota zegoen mahaia ere berriztatua izan da. Guzti honi pipiaren aurkako baksolizazio tratamendu berezio egin ondoren.

Hauez gain, auzokoek teiltatua gain-begiratu eta jai egunerako ermittari txukundu ederra ere eman diote.

San Nikolas

San Nikolas eguna, berriz, asteazkenean, abenduaren 6an ospatuko da. Goizeko 10:30ean parrokiaren emango den mezaren ondoren, San Nikolasen aldrean egingo den bedeinkazioaz emango zaio hasiera. Portikopean zai izango duen Abaltzisketako pottoka gainean jarrita Jermanenera abiatuko da obispo-txoa neska-mutikoak atzetik dituela. Hemendik Kale Nagusian gora ekingo diote kantu eskeari, plaza gurutzatuta erdiko



Hilarria, orain San Bizenteren irudia dagoen paretatik atera da, hau berriz, egurrezko gurutze gotikoa dagoen aldreetik paretara pasa da.



Iazko San Nikolas, Hugo Gonsalves, Zaharren Egoitza bixitatu eta plaza aldera, Ixidro Arrondok eta Joxe Luix Etxeberriak gidatuta.

kalea jeitsi eta Baztarkaetik gora abiatuz, Akelarre, Itturiberrialdea eta Gain argi pasa ondoren bikarioaren etxe aurrean bukatzeko. Jarraian Komentuko lokutoriora sartuko dira pottoka eta guzti monjei kantatzera. Ez da hau garai bateko ibilbidea, orduan bikarioaren etxetik abiatzen zen, alkatearenetik pasa, eta obispo jantzitakoaren hurrena, jarraian etxetik abiatzeko. Duela urte batzuk gainera, bezperatik hasten zen giroketa. San Nikolas jantziko zena, txanoa eta makila hartuta, neska-mutiko koadrila lagun zuela, bere etxe azpira joan eta "Sanikolas kirikolas..." abestu ondoren bere familiakoak lehiotik botatuko jasotzen zuten. Orduan, gaur ez bezala, garaiko fruituak botatzen ziren, pikuak, intxaurrak, gaztainak, urrak,

mixperak, sagarrak edo mandarinak.

Zozketak aginduta, Lehen Hezkuntzako 1go urteko 6 urte dituen Ioritz Arizkorreta Aranza izango da aurtengo San Nikolas. Sakristauenera joan beharko du janztera, han baitago jantzia Ramona Lezetaren ardurapean, duela 100 urte baino gehiago, emakume batek Jose Lezeta bere aitari eman zionaren neurri eta erara berritua.

Baserrietako bideberritzeak

Pasa den azaroaren 23an herriko baserritar eta lur jabeekin egindako bileran, Udalak bideen berritzeaz duen planteamentu orokorra azaldu zuen. Beste garai batzutan Goimeneetik eta, eginbehar hauetarako laguntzak izan badira ere, momentu honetan ez dago herriz gainera inongo erakundetatik inolako laguntzarik. Proposamenaren arabera, Udalak kostu guztiaren % 65a bere gain hartuko luke, eta gainerako % 35a baserritar eta lur jabeen gain joango litzateke. Ondorengo egunetan auzoz auzo, Axkueta, Urnausi, Zerainsagasti eta Azpaotza aldekoekin bilduko da Udalak. Hauekin bukatutakoan tratatuko da bide txikiagoena. Gabonak alderako baserritar eta terreno jabeekin adostasunera iristea espero da, jarraian bideberritze lanekin hasteko.

Musa eta herriko korua Zopajalen

Zopajale elkarteak urtero garai modu honetan zenbait ekintza antolatu izan ditu. Aurtengoan, abenduaren 15ean mus txapelketa azkarra jokatu da gaueko 10etan. Izen ematea elkartean bertan, musa 8 hamarrek 3 usteletara izango da, bikoteko 2.000 pezeta ordainduta. Abenduaren 16an berriz, herriko koruaren emanaldia izango da afal aurretik eta ondoren. Afaria 9etan izango da eta abenduaren 13rako eman behar dira izenak elkartean bertan.

 Joseba Telleria

Anbulategia Areson oraingoz

Udaletxeari erantsita dagoen eraikuntza hondamen egoeran dagoela jakinarazi berri dute. Hau dela eta, anbulategia bertatik kendu eta Areso kalean jarri dute behin-behineko. Hain zuzen ere, 18 eta 21 zenbakietan Maizpide Euskaltegiak dituen lokaletan. Bezeroen harrerarako telefonoa, aurreko berria da.

Azaroaren 21ean jakin zen anbulategia itxi behar zutela. Udalak, eraikuntzaren azken solairuan liburutegia jartzeko erabakia hartu zuen. Honetarako, berritze lanak hasi zituztenean konturatu ziren zutabeak egoera txarrean zeudela. Azterketa sakonagoak egin ondoren, Udaletxeari erantsita dagoen eraikuntza honetako zutabe eta habeak erabat ustelduta zeudela eta osorik behera etortzeko arriskuaren berri jakinarazi zuten adituek.

Arriskuaren aurrean, Alkateak azaroaren 27an anbulategia itxeko erabakia hartu zuen. Egoerari irtenbideren bat aurkitzeko bi aukera zeuden, herrian bertan lokal berri bat aurkitzea edo Beasaingo anbulategian lazkaotarratzat zerbitzua eskeintzea. Azken honek eragozpen handiak sortuko litzuke batez ere egunero anbulategira joaten diren edadetuentsat. Herriarrengan urduritasuna eta era guzietako komentarioak zabaldu ziren. Anbulategirik gabe geratzeko beldurra zegoen.



Areso kaleko behe hauetan dago anbulategia.

Berehala aurkitu zen behin-behineko irtenbide bat eta gaur egun Areso kalean Euskaltegiak dituen lokaletan jarri da anbulategia. Herrian bertan geratzeko dira medikuaren beharra dutenak, Beasaina joaten aritu gabe.

Antzerki saioak

Ostiral honetan, abenduaren 1ean, "Hika" taldeak "Henry Bengoa inbentarioa" antzezlan eskeiniko du Areria zineman gaueko 10etan. Hau, Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta 3 saioetatik bigarrena izango da.

Hirugarrena, berriz, abenduaren 15ean ordu eta leku berdinean ospatuko da, "Bederen 1"-en eskutik "Zu(t) gabe" antzezlan.

Antzerki saio hauetan lehena azaroaren 16an izan zen. Orduan, osteguna zenez, Euskaltegiko jendea izan zen nagusi zineman. Hurrengo biak, berriz, ostiralean direnez, herriko jendearen erantzuna nolakoa den ikusi beharko da. Etxean bertan horrelako kultur ekintzak antolatu eta ez aprobetxatzea gehiegizko luxua izango litzateke.

 Mikel Albisu


ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa




-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

VOLVO



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN



S. A.


liburudenda

⇒ Liburuak
⇒ Jostailu didaktikoak
⇒ Eskola materiala
⇒ Bulego materiala

Elosegi, 16
Tfnoa.: 88 65 00
LAZKAO

Herria bidez bide zeharkatzeko aukera

'Idiazabal bidez bide' liburuxka argitaratu berri du Kirol Elkartearen Mendi Sailak. Lan honen helburua, ibiltariari, ahal den neurrian, lehenagoko bideen aztarren batzuk hor ditugula gogoraztea da. Gauzak honela, Mendi Sailko, ibilaldi motz eta errazak proposatzen ditu. Liburuxkaren hitzaurrean esaten den bezala, "geroz eta jende gehiago ikusten dugu batetik bestera ibili nahian. Izan ere, modan dago ibiltzea; zorionez. Ibiltzera nahi du bultzatu liburuxka honek ere, lasai ibiltzera. Asfalto beltza utzi eta mila gauza zahar-berri eskaintzen duen ingurura egiten dizue gonbite, estrada eta galtzada zahar-berrietara".



Guztira 5 dira proposatzen diren ibilbideak: Ergoeneko ola galduak; Dolararka estrada zaharretik mendi

magalera; Mendi gorria; Etxe haundien arrastoan; eta Ormaiztegi mugaraino. Ibilbide bakoitza, mapatxo, argazki eta xehetasunez hornituak datoz liburuxkan.

Hori bai, Mendi Sailak zenbait aholku ematen ditu ibiltarientzat: bideko langak lehen zeuden bezala utzi; fruiturik edo soroko ezertxo ere ez hartu; ganadua baldin badabil, ez ezazu izutzeko moduko ezer egin; belar handia dagoen lekuetan, beste bide bat hartu ahal izanez gero behintzat; ez txikitu edo hondatu bide inguruko ezer; ibilaldiok egiteko ez da aparteko arropa edo oinetakorik behar.

ZERAIN

Otatza Sagardotegia abenduaren 7an irekiko da

Lehorteagatik sagarra aurrerago etortzeak, urriko haizeteek sagarra bota izana eta hego haizeak sagardoa-ren heltze prozesuan izan dueneraginagatik, aurtengo denboraldia aurreratu egingo da.

Joxe Antonio Iparragirrrek, bere aurrekoei ikasita, bizitza guztian egin izan du sagardoa. Baina iaz gauzatu zuen bere betiko ametsa, Otatza sagardotegia irekitzea. Aurten 2. denboraldia egingo du, hartarako 40.000 litro kupeleratu dituzte, iaz baino 18.000 litro gehiago, gutzia Goierrialdeko sagarrez egina.



"Garapen rural"eko ikastaroa egitera etorritako Guadalupe irlako taldea, Joxe Antonio, Ramoni eta Koxki sagardotegikoak eta Jakoba Errekondo.

Denboraldiari abenduaren 7an emango zaio hasiera, egun horretan barrukotea izango da dohainik. Aurtengorako bi kupel handi gehiago jarri dituzte eta erretegia ere berritu egin dute. 100en bat lagunentzako kabida duen sagardotegi hau, aste guztian izango da zabalik, nahi izanez gero txuleta eraman eta bertan erre daitezke, eta igande eta jai egunetan aurrez 801757 telefonora deituta bazkariak ere ematen dituzte.

 Joseba Telleria



Tfona: 885500 ORDIZIA

URBITARTE sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

Aitor Garmendia ilusioz denboraldi berriari begira

Aitor Garmendia itsasondotar txirrindulariak 95eko denboraldia bukatu berri badu ere, dagoeneko 96koa prestatzen hasia da. Denboraldi berrirako ONCE-rekin sinatu du, baina urte bukaerarte Banestorekin fitxa duenez, hauen baimena behar du Manolo Sainz-en taldean aurrendenboraldiko entrenamenduak has-teko.

G.- Egiguzu pasa den denboraldiko balorazio bat.

E.- Gorabehera asko izan ditut, denboraldia oso ondo hasi nuen, bueltak disputatzen ibiliaz. Tour-aren aurretik beharaldi bat izan nuen eta ez nuen lortu lehengo maila hartzerik, ondoren ere beste karrera batzutan ondo ibili arren. Esperientzi bezala ona izan da, ikusi dut aukerak dauzkadala itzuli txikiak irabazteko eta ilusioarekin nago datorren urterako, ea hau baieztatzen den. Aurten Castilla-Leonen erlojuaren aurkakoa



irabazi dut, eta hainbat lasterketatan 2-3. postuetan ibilil naiz. Baina irabaztea oso zaila da, asko kostatzen da. Bi hilabetetan forma matentzea lortzen da, baina gero "bajoi" bat izaten da eta berriaz aurreko forma errekupeatzea ia ezinezkoa da.

Galdeketa eroa

- Zein izan da azkena egin dizuten oparia?

- Andregaiak Erregetan liburu bat oparitu zidan.

- Eta zuk egin duzuna?

- Ez dakit, ah! txandal bat.

- Zer ez zenuke erotuta ere egingo?

- Horrenbeste daude, parakaidan bota edo horrelakorik ez, beldur asko ematen dit.

- Bidai bat nora egingo zenuke?

- Gustora Kanada ingurura joango nintzateke, hura ezagutzera.

- Debate bat egitekotan zein gai aukeratu zenuke?

- Beti politikaz egiten dira... Nik ingurugiroa aukeratu nuke.

- Zein dira zure filme eta libururik gustokoenak?

- Pelikula "Proposicion indecente". Liburuak asko gustatzen zaizkit, azkenetako bat "El clan del oso cavernario", baita "El medico", oso polita, serioetakoa.

- Do you speak english?

- No. Ez, ingelesa oso konplikatu da. Gainera, bizikletaren munduan beti frantsesez hitzegiten da, hau ulertu ezkeren moldatzen gara.

- Zer da jasan ezin dezakezuna?

- Asko "kabreatzen" nau pertsona batekin ordu batean gelditu eta berandu azaltzen bada.

- Animaliak gustatzen al zaizkizu?

- Bai, gainera asko gustatzen zait dokumentalak ikustea, "National Geographic" modukoak.

- Txirrindularitzak parranda egiteko denborarik uzten al du?

- Denboraldian zehar ez, baina neguan, 2 edo 3 hilabete nahiko libre izaten ditugu eta aprobetxatzen ditugu juergatxoren bat egiteko. Ez gehiegi, ez baita komeni.

- Zein izan da gehien errepikatu dizuten galdera?

- Etapari buruz, zer jaten dugun... Txirrindularitzako galderak beti berdinak dira.

Eduarne Ayuso - Larraitz Arratibel

G.- Mundialean ere izan zara.

E.- Oso esperientzia polita izan da, nere lehenengoa zen. Pena da ni ez nintzela oso ondo ibili, denboraldi luzearen ondorioz nekatuta iritsi nintzen. Bestela, lehen bi postuak lortu genituen eta alde horretatik oso ondo atera zen, oso pozik etorri ginen. Altura asko nabari zen, 2.600 metroan zen eta batez ere aldapa bat igo ondoren nabari zen oxigeno falta. Hezetasuna, bizimodu ezberdina, dena nabari zen.

G.- Nolatan sinatu duzu Once-rekin?

E.- 6 urte neramatzan Baneston eta beti Miguelen ondoan nolabait akomodatu egiten zara. Urte erdi aldera ONCEk deitu eta eskeintza bat egin zidan. Nik Tour-a bukatzean Banestokoekin hitz egin genuen eta ez zuten eskaintza berdindu. Orduan garbi zegoen, neretzat hoberenari begiratu behar niola eta neretzat hoberena hau zen. Gainera ONCE talde sendoa da, bai organizazio aldetik, bai denean. Zuzendariak asko exigitzen du eta ea "esplotatu" eta zerbait lortzen dudan.

G.- Banesto hainbat txirrindularik uzteko arrazoirik ba al dago?

E.- Aurten 10ek utzi dugu taldea, batzuk ni bezala eskeintza hobeak izan dituztelako, beste batzuk taldeari ez zaizkiolako interesatzen... Gainera taldeak aurrekontua jeitsi egin nahi du eta horretarako txirrindulariak kendu beharrean dago. Hala ere txirrindulari onak daude, agian behar dutena Tour-eko mendian Indurainekin aurrean joango den norbait da. Saiatu dira fitxatzen, baina Miguelen itzalean egotearen beldurrarengatik edo, ez da inor etorri.

G.- Talde oso indartsua da ONCE, denontzat lekurik izango al da?

E.- Manolo Sainzek denboraldia oso ondo planifikatzen du, badaki txirrindulari bakoitzak noiz egon behar duen sasoian, zein laisterketarako. Momentu hori aprobetxatzen jakin behar da. Batzuetan ez zara ondo aurkitzen eta ez duzu aprobetxatzen, nahiko konplikatu da.

Mikel Albisu

Jose Antonio Martinez olaberritarra Benin-en

Jose Antonio Martinez misiolariak, orain dela 5 urte, Afrika kontinenteko Benin herrialde-
ra joatea erabaki zuen. Orain bi urtez Euskal Herrian egongo da, baina gero berriz Afrikara itzuliko da. "Bakoitzak bere bidea jarraitu behar duenez, nik Afrikara joatea erabaki nuen, hango herritarrei laguntza emateko. Erabaki hau bide askotatik etorri zitzaidan; irakurketa bidez, hango berriak entzunez, etab. Gainera familiak nere erabakia onartu egin zuen".

Benin esklabutzagatik da eza-
guna. Gaur egun 5 milioi biztanle ditu eta bertako hiriburua Cotonou da. "Orain dela 4 urte eman zen aldaketa politikoa. Ordurarte bertako lehendakariak 17 urteko diktadura eraman zuen aurrera. Elizaren eraginez eta batez ere Cotonouko gotzaiaren bitartez, lehenengo hauteskundeak egin ziren Benin-en. Gotzai hau lehendakari modura egon zen urte betez eta ordutik hona demokrazian bizi dira. Herrialde honetako % 68a musulmana da eta % 12a kristaua. Gutxiengo beste erlijio batzuk ere badaude".

Herrialdea oso txiroa da Jose Antonionioren esanetan. "Bertako herritarrek lanaren bidez jakiteko adina edukitzen dute. Baratzeetan artoa, mandioka eta tomateak lantzen dituzte. Fruitu tropikal asko daude; mangoak, papaya, pinak, platanoak eta baita 'fruta farmazia' deritzon bat ere: fruitu honek gaitxotasunak sendatzeko ahalmena dauka. Bere hostoek paludismoari aurka egiteko balio dute".

Jose Antonio Benin-era iritsi zenean, bertako txirotasunak eta zikinke-



riak harritu zuen gehien; zakarrak etxe ondoan uzten zituzten. Orain aldiz, erre egiten dituzte. Kanean, berriz, txerriak, oiloak, ardiak eta beste hainbat animalia ibiltzen dira; horregatik daude horrenbeste gaixotasun.

Lehenengo Salesianoak orain dela 13 urte joan ziren Benin-era. "Beraien lana gazte txiroenei irakastea da. Hauek dira irakasten dituzten lanbideak; elektrizitatea, mekanika orokorra, autoaren mekanika eta zurgintza. Salesianook dugun helburu orokorra lan hauen bidez da ebanjelizazioa lortzea".

Diktadura garaian bi urtez ez zuten klaserik eman eta horren ondorioz, gazte asko hezkuntza profesional mailako lanak egiten hasi ziren. Ondorioz Parakouko gotzaiak Salesianoei eskatu zien gazteei lanbideak erakusteko.

Bestalde, eskola publikoak ere badaude baina gazteek diru asko ordaindu beharra daukate. Ondorioz, gazte askok beste ikasketa batzuetara jotzen

dute; irakasle batek lanbide bat erakusten diete. Jose Antonionioren ustez, "hau esplotazioa da, gazteek lan asko egin beharra baitaude urte askotan zehar. 'Liberazioa' lortzeko diru asko ordaindu beharra daukate. Salesianoek helburua da 'liberazio' hau ematea diru gutxiren truke".

Salesianoek 4 elizbarruti eraiki dituzte Benin-en. Horietako batean Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz ikasketa leku ezberdinak eraiki nahi dira.

46 arraza eta hizkuntza

Arrazen aniztasuna da beraien lanaren arazoetako bat; "46 arraza ezberdin daude eta 46 hizkuntza. Nahiz eta frantsesa izan hizkuntza ofiziala, metro gutxiren barruan hizkuntza erabat aldatzen da".

Denbora gutxian kooperatibak jarri nahi lituzkete Salesianoek. Kooperatiba hauetako batean hiru urtez talde bat egongo litzateke. Denbora horretan gazteek dirua eskuratzeaz gain, helburu nagusia beraien kabuz lantegi bat irekitzea izango litzateke. "Lan horretan sartzeko kondizio bakarra beraien arteko errespetua mantentzea da. Burundi eta Ruandako arazoa eman ez dadin, arrazen arteko errespetua klabea da. Beningo herritarrentzat ume asko edukitzea garrantzitsua da, gero eta gehiago izan, arraza indartsuagoa izango baita. Hala ere, gazteek ez diote honi horrenbeste garrantzi ematen".

 Belen Parra - Nagore Goiburu

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



GOIERRITARRA



88 96 12

Faxa: 88 27 19



Misioak Mutiloan

Maria Teresa Garziak ekarri digu argazkia Mutiloa aldetik. 1950. urtean Misioak Mutiloan egin zituztenekoa da. 8 egunetan egiten zituzten Misioak, eta Mutiloako herritarrez gain, Zerain eta Segurakoak ere izan omen ziren. Bakoitzaren izenak ematea, ezinezkoa da ia, baina hiru apaizak (ezkerretik eskubira) D. Teodoro Bikuña, Don Ramon Etxeberria eta Don Rafael dira.

**GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

Finalaurreak **95**

ORDIZIA

Bertsolariak:

Unai AGIRRE	Maialen LUJANBIO
Jon EIZMENDI	Aitor SARRIEGI
Bixente GOROSTIDI	Jokin SOROZABAL

Eguna: Abenduak 3 Ordua: 17:30
Lekua: "MAJORI" Kiroldegia

Antolatzailea: Gipuzkoako Bertsolari Elkarte

Laguntzailea: Egunkaria

Babesle nagusia: fundazioa kutxa fundación

OLAGI
sagardotegia

Sagardotegiko afariak
Eguneroko menuak
Ospakizunak
☎ 88 77 26

ALTZAGA



OSKARBI
OINETAKOAK

Dr. Martens


Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44

ORDIZIA





CAF

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.

CAFek diseinatu eta eraiki du Bilboko Metroa, honako teknologi aurrerapen hauekin

- * Bagoien arteko komunikazio erraza.
- * Trenaren eta-lurraren arteko irratitelefonia.
- * Bidaiaiei mezuak igortzeko megafonia.
- * Bideo ekipoa gidari kabinan, bidaiarien departamentua ikusmenean izateko.
- * Erabiltzailearentzako konfort handia: aire egokitua, soinu-kontrako gorpil elastikoak, esekidura neumatikoak, trenaren helmuga eta zenbakiaren adierazleak, geltoki iragarle akustikoak eta optikoak, eserleku ergonomikoak, mugitzeko zailtasunak dituzten bidaiarientzako leku berezia, eta abar
- * Suaren kontrako material eta estaldura
- * Ordenadorea, trakzio ekipoa kontrolatu eta zaintzeko, eta ekipa lagungarriak gainbegiratu eta automatikoki puntuan jartzeko
- * Gidatzea eta mantenimendua laguntzeko sistemak gora-beherei buruzko informazioarekin.

